

GOGOETARI LEIHO

Txillardegiren alde

«GOGOETAKA LUZE ibili eta gero, honako idazlantxo hau egiteko eta (...) argitaratzen eskatzeko deliberamendua hartu dut. Ez zait erabaki erraza gertatu, asko direlako sor daitezkeen susmoak, gerta daitezkeen ezulertze eta erratuak eta era berean zaur daitezkeen sendimenduak. Ez bata, ez bestea ez daude ene borondatean. Are gehiago, ez nago ni neu ere seguru hau egiteko nor naizetik. Ez egitekotan, ordea, koidarrarena egiten ibilikio nintza-tekeelakoan hartu dut azkenen deliberatioa».

Horrela hasten nuen duela lau urte, izenburu berberagaz hornitua, 'Argia' astekarian argitaratu zidaten artikulu-eskutuiz moduko bat. Abagadune oso antzekoa: Gipuzkoako euskaltzain oso bat hil eta gero —Koldo Mitxelena egokiera hartan—, Euskaltzaindiaren barruko tradizio ez idatziak agintzen duen legez, giputz euskaltzain urgazleen artean hasi zen hil berriaren ordezkoren bila. Harako hartan Jose Luis Alvarez Enparantza barik, Ibon Sarasola aukeratu zuten beste 23 euskaltzain osoek. Ez zen hori baina Txillardegiren hautagaitza aurkezten zen lehenengo parada. Aurreko bietan ere, lege idatziak agindu bezala, hiru euskaltzain osok aurkeztuta zeukaten beraren izena. Lehenengoan Patxi Aituna filologoa hautatu zen. Bigarrenean, aldiz, Juan Mari Lekuona poeta.

Orain Aita Barandiaran joan berri zaigu, euskaltzain osoa ere bazena. Halandaxe, laster baten, noiz ez dakit, hauteskundeak izanen dira Euskaltzaindian ostera ere. Oraindik ez da, nik dakidanez, ezer ere aipatu. Horregatik hain zuzen ere, aurreko hartan legez egitea erabaki dut. Eta ez gero Txillardegiren lagun naizelako, edo beraren ideiekin bereziki bat natorrelako zein norbaitek hau egiteko ordaindu dikedalako, edo are gutiago noredonoren kontra nengokeelako eta ezkutuki egin gura nukeelako. Ezta. Horrela egin behar dela uste dudalako baizik, alegia, Txillardegiri idazle handia, euskaltzain osoek, nire ustez berak merezi duen bezala, eta orobat euskaltzain osoek berek merezi duten legez, beraien artekoiztat jo dezaten esperantza ona daukadalako.

Txillardegiri ezer bada, eta Euskal Herriaren historian inoiz gomutatuko bada, idazlea izategatik delako. Ez, hain zuzen, politikan eragin-dakoagatik, egin dituenak guti izan ez arren (beste batzuekin batera E.T.A sortu, hainbat urte atzerria eman, itzuli denetik politikan etengabe aritu), edo egin dabilen ingeniaria izategatik, (edozelakoak izanda ere eraiki dituzkeen zubi nahi zutoiarte industrial), ezpada idatzi dituen 30-35 libururen-gatik eta itzuli dituen 10-15engatik, alde batera utzi gabe idatzi dituen 5.000 edo kazetaritza-artikulu. Eta kiloka neur-tuko bagenu, edo nahi bada kilometroka, zenbatak idatzi du euskaraz donostiar idazleak beste?

Joxe Azurmendik beharbada, aita Villasantek? Zalantza egiten dut.

Gainera, ez edozelako idazle, ezpada euskal prosa modernoaren sortzailetariko bat, edozein izanda orain dauzkakegun eritzi eta gustu. Gerrosteko belaualdietan, gerraurreko zen Orixerekin Jokin Zaitegi, Andima Ibinagabeitia eta Salbatore Mitxelena bidez loturik, eta Jon Etxaidek aurreko katanbegia osatuta, bera da, zalantzarik bat ere gabe, saihespide batetik helduko zaizkigun Mirande eta Peille-nekkin batera, Sarasolak 64koa eritzi zion belaualdien aurrekoa, hau da, Sarasolak berak, Kintanak, Saizarboriari eta R. Arregik, Jakin taldekoekin batera, osaturiko belaualdien aitizindaria.

Gogora daitezke haren elaberriak. *Betikoak*: 'Leturiaren egunkari ezkutua', nik neuk hainbeste maite izan nuen 'Peru Leartzako' edo eta



hainbeste euskara irakatsi zigan 'Elsa Scheelen' (aurreko baten, lagun batek ziotanez, berak nik bezala elaberri horretako lehenengo paragrafoan ikasi zuen 'ezari ezarian' adierazpenak zer esan gura zuen). Berandukoagoa eta bereziagoa den 'Haizeaz bestaldetik', edo eta prosa bizkor miragarriaren eredu den bere azkena 'Exkizu', nire ustez euskal elaberri-gintzan Etxaidearen 'Joanek joan' *elaberri giritinoarekin*, Miranderen 'Haur besoetako' zoragarriekin eta Irigoienen 'Babilonia-rekin', daukagun kondalibururik ederrenetarikoa bat, edozelakoak direlarik norberak bertan aipatzen den pertsonaiaren ideologiari buruzkoak uste dituenak.

Irakurle gisa euskal literaturmundura hirurogeita hamarretan heldu ginenontzat beti egongo da gure oroimenean, eta hain segur bihotzaren zoko txiki batetan, 'Huntaz eta

hartaz' saioliburu ederra, euskaraz edozertez era egokiz, zehatzez eta gustagarri idatz zitekeela erakutsi zigan obra polita. Edo eta garaitsukoa den Albert Memmirena den, eta berak euskaraz 'Kolonizatuaen ezaugarria' baitaiatu zuen itzulpen zail eta ondo egina. Edo eta, berriro ere, 'Zeruko Argia' zahar eta egunkari itxurako hartan astero astero argitaratzen zituen artikuluak mundu osoko herri eta kulturez, berak daukan kazetaritza-prosa labor eta adierazkorraz.

Eta gramatika zein euskarari buruzko liburuak? Zenbat ikasi dugu berarengandik, gero sarritan arrazoia ez zeukala esateko baino ez barien ere? 'Sustrai bila. Euskara batua zertan den' eta abar eta abar? Zeinek egin du herri-hizkeraren aldeko propagandarik gehien berak baino, 'Auspoa' sortaren etengabeko aipatzeaz eta eredu bezala jartzeaz?

Horrelako ekintzengatik gogoratuko da betiko Jose Luis Alvarez Enparantza, ez, ezelan ere, antza daukan umore txarragatik, edo eta euskaldun giputz ohorezko bezala den egoz-korragatik. Ezta ere publikoki egindako errakuntza guztiengatik, eta nonbait banan banan kobratu gura zaizkionengatik, edo nabaria zaion diplomazia-mentsagatik. Ezta. Orain arteko guztiok utzi dizkiguten obregatik dira ezagun, jarauntsi diguten altxorrenagatik. Mirandek, zena zela, elaberri ikaragarri bat utzi digu, ipuin sorta bat mirezgarria, eta poema-bilduma eta eskutitzeria interesgarriak. Eta Azkuek gauza bera, eta Mitxelena, eta Lekuonak eta beste hainbestek. Horrela bada gauza, zergatik ez ontzat jo orain inoiz ontzat joko dela badakiguna?

Bene-benetan sinesten dut, 60 urte baino gehiago daukan Txillardegiri bezalako idazle on eta emankorrek badaukala eskubide euskaltzain osoa izateko eta euskaltzain osoaren izendapenaz ohoratu izateko. Nahikoa eman dio eta euskaldunon hizkuntzari. Gazteagoei ez zaie aukerarik faltako.

Hala bedi!

ANDOLIN EGUZKITZA

HEMEROTEKA



RUFINO IRAOLA

Bertsolaria Txapelketetako epaile
EL DIARIO VASCO

1992+22

«Aurrera begira, erabat objektibizatzerik egongo ez den arren, erizpideak apur bat hurbiltzen saiatzea eskatuko nuke nik. Noski, bertsotxarra edo erdipurdikoa denean ez dago hainbesteko prolemarik; bertsotona denerako baremo zuzentzaileen atzetik nabil ni. Adibidez: gaitik alendu, lagunari erantzun ez, arrazoi gastatu samarra erabili, erima gastatuak edo komodinak sartu, zita batek plagio itxura izatea... (...) Horrelako kontu guztiak eztabaidatu eta aztertzeo bilkurak egin beharko dira epaimahaiko gabiltzan guztion artean, hortik puntuazio-baremo egoki bat ateratu dadin».

«Ipar Irlandan, egitura kolonialaren amaiera da gatazka sortzen duena. Lealista, protestante edo dena delakoak, herria hartu eta euren pribilegioak ezarri zituztenen ondorengo dira. Ez dakit egoera hau Euskal Herriaren antzeko ote den. Ez nago Euskal Herriaz analisi bat egiteko moduan. (...) Zine politikoa egin duten zinegileen arteko batzuek oso filme onak egin izan dituzte. Sozial-errealismorako joera izan dut nik betidanik. Garbi dago zine politikoa ez dela inoiz modakoa izan, nahiz eta beti izan duen presentziarik. Gaur egun modan dagoen zinea, batez ere, ebasiozkoa da».

KEN LOACH

Zine zuzendaria
EL MUNDO

1992+21



MANUEL LASARTE

Bertsolaria
ARGIA

1992+19

«Ez dago inork uste ainako alderik gure garaiko eta gaurko bertsolaritzaren artean. Gaurko bertsolariei ez diet jarraitzen. Ez ditut entzuten ere egiten, sufritu egiten dut eta. Bat gaizki pasatzen ikusten badut neu hasten naiz tratatu txarra pasatzen. (...) Lehen beste ibilera bat zen, gure garaian. Zortzi edo hamar egun noiznahi pasatzen genituen etxetik kanpo, ez bait zegoen garraibide egokirik. Horrela ibiltzen ginen, eta ibilera txarra da. Orain arinagoa da dena. Pasada txarrak asko pasatu ditugu. Ez da lan gustagarri bat, baina lagun asko egiten dituzu, eta gustora».

«Ez nau asebetetzen zinema munduko mito ezaguna izateak. Nahiago nuke beste edozer gauza izan banintz aktore izan beharrean. Lanbide honek jazarpen asko jasatera behartzen zaitu. Mundu guztiak eman nahi du bere iritzia, eta zure bizitza pribatuaz xehetasun guztiak jakin. (...) Alde batera utz ditzagun zinea artea dela eta horrelako babukeriak. Dirua egiteko balio duen industria bat da zinema. Ez duzue bada ni artearekiko maitasun soilez lan egiten duen inozo bakarra izaterik nahi izango! Deitzen naute, erantzun eta aktuatu egiten dut... Logikoa da horregatik dirua kobratzea».

MARLON BRANDO

Aktorea
EL CORREO ESPAÑOL

1992+22



THOMAS KRENS

Guggenheim Fundazioiko
zuzendaria
DEIA

1992+8

«Ez zait asko kostatzen gehien gustatzen zaidan koadroa zein den esatea, denok bait daukagu bat besteak baino maiteago duguna, nahiz eta asko izan gustokoak. New Yorkeko Metropolitanen dago maiteen dudak koadro hori: Velazquez 'Juan Pareja'. Nahiz eta nire espezialitatea XX mendeko egileak izan. (...) Euskal artistei dagokien, haren eman estua dut Eduardo Txillidarekin, eta gainera gure fundazioak baditu bere obrak ere. Euskal arteaz, oro har, oso ezagutza oinarrikoak ditut. Arlo honetan izan dudak azken esperientzia New Yorken egin zen Zuloagaren erakusketa izan zen».